# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

**591**

**42/1989 DEKRETUA, otsailaren 28koa; Euskal Autonomi Elkarteko agureentzat eta lanerako ezinduentzat, Gizarte Ongizateko Fondoak, jarritako pentsioak araupetzeari buruzko maiatzaren 129/1986 Dekretua zati batetan aldatu eta pentsio horien diruzenbatekoa gehitzen duena.**

Euskal Administrazioak aspalditik Gizarte Ongizateko egitarauei eskeini dien premiazko arreta kontutan izanik, eta alor honetan Euskal Autonomi Elkarteak dituen agintepide esklusiboez baliatuz, maiatzaren 26ko 129/1986 Dekretua eman zen, agure izatearen edo lanerako ezinduta egotearen ondorioz bizitzeko behar-beharrezko dituzten premiei aurre egiteko dirusarrerarik ez dutenen egoera larria konpontzeko edo, gutxienez, arintzeko izango diren laguntzak araupetzeari buruzkoa alegia.

Arau horren izakerak eta helburuak eraginda, eta erabilgarri ditugun baliabideen barne, bidezko egiten da 129/1986 Dekretuko hainbat alderdi ikutzea eta eraberritzea, lehendik ere otsailaren 23ko 38/1988 Dekretuz egindako moduan; horren helburua bikoitza izango da: alde batetik, baliatzaileen kopurua gehitzea, pentsioetarako eskubidea gehiagok izan dezaten, eta bestetik, horiek gaurkotzea, dirukopurua gehituz.

Pentsioen kuotak gehitzeko proposamena, maiatzaren 26ko 126/1986 Dekretuko Xedapen Gehigarrian ezarritakoa betez, Finantzetarako Euskal Kontseiluak egin behar du, gero Jaurlaritzako Kontseiluak onar dezan.

Hori horrela, Finantzetarako Euskal Kontseiluak hartutako akordioaren arabera, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritza Kontseiluak 1989.eko otsailaren 28an egindako bileran eztabaidatu ondoren, zera

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Otsailaren 23ko 38/1988 Dekretuz aldatutako maiatzaren 26ko 129/1986 Dekretuko bigarren ataleko 1-c) idazatia, honako era honetan erredaktaturik gelditzen da:

c) Agureentzako diren laguntzei dagokienez, hirurogeitazazpi urte beteta izatea; gaisotasunei eta ezintasunei dagokienez, 16 urtetik gora izatea eta erabat ezinduta egotea lanik burutzeko.

*2. atala.*– Agureentzako eta lanerako ezindutakoentzako dirulaguntza aldizkakoen, Maiatzaren 26ko 129/1986 Dekretuz araututakoena alegia, diruzenbatekoa hileko 20.000 pezetatan finkatzen da, horrez gain ohizko hilabetekoaren adinako bi paga osagarri eskuratuko dituztela.

## DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

**591**

**DECRETO 42/1989, de 28 de Febrero de modificación parcial del Decreto 129/1986, de 26 de mayo por el que se regulan las pensiones del Fondo de Bienestar Social de la Comunidad Autónoma del País Vasco a ancianos e incapacitados para el trabajo y se eleva la cuantía de las mismas.**

En el marco de la atención prioritaria que tradicionalmente se ha dado a los programas de Bienestar Social por parte de la Administración Vasca, y en ejercicio de las Competencias exclusivas que sobre esta materia posee la Comunidad Autónoma, se dictó el Decreto 129/1986, de 26 de mayo que regulaba las ayudas tendentes a resolver o, al menos, mitigar la situación de necesidad en que se encuentran aquellas personas que por motivos de ancianidad o incapacidad para el trabajo, carecen de los ingresos indispensables con que atender las necesidades básicas de la vida.

Atendiendo al espíritu y finalidad de esta norma y dentro de los recursos disponibles, se considera preciso reformar, tal y como ya hizo el Decreto 38/1988, de 23 de febrero, algunos aspectos del Decreto 129/1986, con la finalidad, por un lado, de ampliar la cobertura, extendiéndola a un número mayor de beneficiarios de estas pensiones y por otro actualizar las mismas, elevando su cuantía.

Por otra parte, y en cumplimiento de lo dispuesto en la Disposición Adicional del Decreto 126/1986, de 26 de mayo, el Consejo Vasco de Finanzas debe proponer la elevación de las cuantías de las pensiones para su aprobación por el Consejo de Gobierno.

En su virtud, de conformidad con el acuerdo del Consejo Vasco de Finanzas, a propuesta del Consejero de Trabajo y Seguridad Social y previa deliberación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 28 de febrero de 1989,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– El apartado 1-c) del artículo segundo del Decreto 129/1986, de 26 de mayo, modificado por el Decreto 38/1988, de 23 de febrero, queda redactado como sigue:

c) Haber cumplido sesenta y siete años de edad para las prestaciones de ancianidad o, en el caso de las ayudas por enfermedad o invalidez, tener más de 16 años y encontrarse absolutamente incapacitado para toda clase de trabajo.

*Artículo 2.*– La cuantía de las prestaciones económicas periódicas en favor de ancianos e incapacitados para el trabajo, reguladas por el Decreto 129/1986, de 26 de mayo, queda establecida en 20.000 pesetas mensuales, abonándose dos pagas complementarias por un importe igual a una mensualidad ordinaria.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Dekretu hau indarrean sartzearen kaltetan gabe, horretan finkatutako dirulaguntzaren zenbatekoak 1989.eko urtarrilaren 1etik izango ditu ondorio ekonomikoak.

INDARGABETZEZKO XEDAPENA

Dekretu honen aurkakoak izan daitezen xedapen guztiak indargabetuta gelditzen dira, maila berekoak zein apalagokoak izan.

AZKEN XEDAPENA

1. Dekretu hau garatzeko eta erabilarazteko beharrezkoak iruditzen zaizkion xedapenak emateko ahalmena eskuratzen zaio Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuari.

2. Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako egunean berean sartuko da indarrean.

Gasteiz, 1989.eko otsailak 28.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lan eta Gizarte Segurantza Sailburua,
JOSE IGNACIO ARRIETA HERAS.

DISPOSICION TRANSITORIA

Sin perjuicio de la entrada en vigor del presente Decreto, la cuantía de la prestación fijada por el mismo surtirá efectos económicos a partir del uno de enero de 1989.

DISPOSICION DEROGATORIA

Quedan derogadas todas aquellas disposiciones de igual o inferior rango que se opongan al contenido de este Decreto.

DISPOSICION FINAL

1. Se faculta al Consejero Titular del Departamento de Trabajo y Seguridad Social para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

2. El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 28 de febrero de 1989.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Trabajo y Seguridad Social,
JOSE IGNACIO ARRIETA HERAS.

# Agintariak eta Lanarigoa
# Autoridades y Personal

## Izendapenak, egoerak eta gora-beherak
## Nombramientos, situaciones e incidencias

### EUSKO LEGEBILTZARRA

592

AKORDIOA, 1989.eko Martxoaren 2koa, Eusko Legebiltzarrarrena, Juan San Martin Ortiz de Zárate Jauna «Ararteko» izendatzen duena.

Eusko Legebiltzarrak mila bederatzirehun eta larogei ta bederatzigarreneko martxoaren bian, balio osoz egindako Osoko Bilkuran, «Ararteko» erakundea sortu eta araupetzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 2.ataleko 2 idatzatian agintzen denaren arauera, eta Euskal Sozialistak, Nacionalis tas Vascos-Euzko Abertzaleak, Eusko Alkartasuna, Euskadiko Ezkerra eta Askotariko (PP eta CDS) Legebiltzar-Taldeek Eusko Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztutako hautagaiari buruzkoan, hitzez-hitz honako hau dioen erabakia hartu zuen:

«JUAN SAN MARTIN ORTIZ DE ZARATE JAUNA »ARARTEKO« izendatzen da».

Eta erasota gelditu dadin, honako egiaztagiri hau egi ten dut, Eusko Legebiltzarreko Lehendakari jaun txit gorenaren oniritziarekin,

Vitoria-Gasteizen, 1989.eko martxoak 2.

Eusko Legebiltzarreko Mahaiko Lehen-Idazkaria,
KORO GARMENDIA GALBETE.

Ongi deritzat,
Eusko Legebiltzarreko Lehendakaria,
JESUS EGIGUREN IMAZ.

### PARLAMENTO VASCO

592

ACUERDO de 2 de Marzo de 1989, del Pleno del Parlamento Vasco, por el que se designa «Ararteko» a D. Juan San Martin Ortiz de Zárate.

El Pleno del Parlamento Vasco, en sesión válidamente celebrada el día dos de marzo de mil novecientos ochenta y nueve, de conformidad con lo establecido en el artículo 2, apartado 2, de la Ley 3/1985, de 27 de Febrero, por la que se crea y regula la Institución del «Ararteko», y en relación con la candidatura presentada ante la Mesa del Parlamento Vasco por los Grupos Parlamentarios Socialistas Vascos, Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos, Eusko Alkartasuna, Euskadiko Ezkerra y Mixto (PP y CDS), adoptó el acuerdo que literalmente transcrito dice:

«Queda designado »ARARTEKO« D. JUAN SAN MARTIN ORTIZ DE ZARATE.»

Y para que así conste, expido la presente certificación, con el visto bueno del Excmo. Sr. Presidente del Parlamento Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de Marzo de 1989.

La Secretaria Primera del Parlamento Vasco,
KORO GARMENDIA GALBETE.

Visto Bueno,
El Presidente del Parlamento Vasco,
JESUS EGUIGUREN IMAZ.